



Europa, eraldatzen ari den mundu baten aurrean: demokrazia, erakundeak eta herritarrak



Ira. 04 2026

Kod. G18-26

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 04 2026

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Nazioarteko sistema eraldaketa sakoneko aro batean dago eta lehia geopolitiko handiagoa, aliantza estrategikoen birkonfigurazioa eta arrisku global berrien agerpena dira, besteak beste, eraldaketa horren ezaugarriak. Nazioarteko ordenaren oreka aldatzen ari da, Europako eta munduko gatazka belikoen, potentzia handien arteko lehiaren, trantsizio teknologiko eta energetikoaren eta klima-aldaketak eragindako erronken ondorioz.

Testuinguru honetan, Europar Batasunak bi erronka ditu aurrean; batetik, ekiteko gaitasuna eta autonomia estrategikoa indartu behar ditu, gero eta konplexuagoa eta zalantzarriagoa den ingurune geopolitikoari erantzuteko, eta, bestetik, bere proiektu politikoaren muina eta funtsa osatzen duten balio demokratikoak babestu eta indartu behar ditu.

Aldaketa globalek erantzun bat eskatzen diote Europako gobernantzaren etorkizunari: norabide estrategiko berria hartu, herritarren kultura politiko demokratikoa indartu, eta datozen urteei begira erakundeak sendotu behar ditu.

Uda Ikastaro honen proposamena da diziplina anitzeko ikuspegi batetik aztertzea erronka horiek, eta nazioarteko testuinguruan gertatzen ari diren eraldaketei nahiz European artikulatzen ari diren erantzun instituzional eta sozialei heltzea; Europako testuinguruaren ildotik, Gipuzkoako lurraldearen ikuspegitik gobernantza demokratikoaren erronkari nola heltzea aztertuko da.

Helburuak

Ikastaroaren helburua, demokraziaren defentsaren eta gobernantza demokratikoaren ikuspegitik, testuinguru geopolitiko berriak Europar Batasunari eta inguruneari planteatzen dizkien erronken gainean hausnartzeko eta eztabaidatzeko gune bat eskaintzea da.

Hauek dira helburu nagusiak:

Nazioarteko ordenaren eraldaketak eta European duten eragina aztertzea.

Ziurgabetasun geopolitiko gero eta handiagoko testuinguru batean, Europako demokraziek dituzten erronkak ulertzea.

Europar Batasunak aldaketa horien aurrean emandako erantzun instituzionalak aztertzea.

Europako proiektuaren legitimitate demokratikoan zer zeregin duten herritarrek hausnartzea.

Zer erronka dituen Gipuzkoako gobernantza demokratikoak testuinguru horretan eta zer ikuspegi duten herritarrek egoera horri buruz ezagutzea.

Lankidetzak



Zuzendaritza



Yosu Arraiz Aramburu

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia Kargua: Estrategia zuzendari nagusia (2025-gaur egun). Ikasketak: Ingeniaritza Zibileko Gradua (UPV/EHU); Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzan Masterreko ikasketak (Universidad de Cantabria); Herrigintzaren Berrikuntzan Aditu ikasketak (MU). Ibilbide profesional eta politikoa: Administrazioaren Berrikuntzako zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundia (2023-2025). Hirigintza, obra eta zerbitzuetako zinegotzi arduraduna, Elgoibar (2015-2023). Debarrena Mankomunitateko presidentea (2019-2023). Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko presidenteordea (2019-2023).

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2026-09-04 ARTE
Orokorra	48,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	41,00 EUR
Matrikula exentzia	34,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	41,00 EUR
Donostia Kultura	41,00 EUR
Elkar	41,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide	41,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa